



GOBERNU BATZARRA

2024.10.15

- Alkatea:**
Angel Martinez de Rituerto Arregi
- Bertaratutako zinegotziak:**
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi
- Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urriaren batean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:**
- Ez dira bertaratu:**
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia
- Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez
- Kontu-hartzaile akzidentala:**
Paulino Alonso Eraso
- 1. Akta hau onartzea: 2024ko urriaren 8koa.**
 - 2. <<24.1 lurramendi pasealekua>> azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa. Behin betiko onespena.**
 - 3. Dekretu honen berri ematea:**
2024/2226 Dekretua: 2024/40 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO URRIAREN 8KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. <<24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA>> AZPIESPARRUKO URBANIZATZEKO JARDUKETA-PROGRAMAREN LEHENENGO ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Udaltzarak 2021eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran, behin betiko onartu zuen <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (2021eko irailaren 10eko GAO, 174. zk.)

BIGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urriaren 13an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruko Hirigintzako Jarduketa Programaren Testu Bategina (2021eko urriaren 29ko GAO, 208. zk.).

HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko apirilaren 5ean hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruaren urbanizazio-proiektua (2022ko apirilaren 29ko GAO, 80. zk.).

LAUGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko ekainaren 28an hartutako erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruaren birpartzelazio-proiektua (2022ko uztailaren 5eko GAO, 127. zk.). Hutsen zuzenketa eman zen azpierrezu horretako jabe guztiek osatutako Hitzarmen Batzordeak sustatua (2022ko uztailaren 11ko GAO, 131. zk.).

BOSGARRENA.- Zailtasun teknikoan ondorioz egikaritzeari dagozkion obrak nabarmen atzeratu direla arrazoituta, <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruko ituntze-batzarrak, Asier Lanceta Vicentek ordezkaturata, 2024ko uztailaren 9an (2024-9139 sarrera zk.), <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruaren Urbanizatzeko Jarduketa Programaren aldaketa-dokumentua izapidetzeko eskaera eta dokumentu atxikia aurkeztu zuen. 2024ko abuztuaren 1ean (2024-10237 sarrera zk.), zuzenketa aurkeztu zuen.

SEIGARRENA.- <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruko ituntze-batzarrak, Asier Lanceta Vicentek ordezkaturata, 2024ko uztailaren 9an (2024-9177/9180/9182/9183/9184/ sarrera zenbakiak.), <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruaren Urbanizazio Proiektuaren aldaketa-dokumentua izapidetzeko eskaera eta dokumentu atxikia aurkeztu zuen.

ZAZPIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 1ean (2024-10237 sarrera zenbakia), <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruko ituntze-batzarrak, Asier Lanceta Vicentek ordezkaturata, <<24.1 lurrarendi pasealekua>> azpiesparruaren Urbanizazio Proiektuaren aldaketa-dokumentua izapidetzeko dokumentazioa aurkeztu zuen.

ZORTZIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 8an, 2024/1821 zenbakidun Alkatetza

ESKU0b3b50f7-b783-47ba-9bca-9c9d98f61bd5



Dekretuz, hasierako onespena eman zitzaion «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen zuen dokumentuari (2024ko abuztuaren 1ean aurkeztutako dokumentua, 2024-10237 sarrera zk.); egokitzat emanez eduki juridiko-urbanistikoaren 5 eta 6. apartatuak aldatzea.

Ondoren, Alkate Dekretu hori zuzendu egin zen 2024ko abuztuaren 13an emandako 2024/1853 zenbakidun Alkate Dekretuz.

BEDERATZIGARRENA.- 2024ko irailaren 23an, hartutako erabakia GAOn argitaratu zen (162 zk. aldizkaria), web orrian iragarri zen eta, hala, udaletxeko taulan erakusgai egon zen 2024ko abuztuaren 26tik irailaren 24 arte. Bestalde, 2024ko irailaren 4 eta 5 artean, Berria, Tolosaldeko Ataria eta El Diario Vasco egunkarietan argitaratu zen. Ondorioz, informazio publikoko epearen amaiera 2024ko urriaren 3an izan zen.

HAMARGARRENA.- 2024ko urriaren 10ean, hirigintzako tekniko juridikoak informazio-aldiari buruzko txostena (MAU240137) egin zuen, ondorioztatuz jendaurrekoan ez zela alegaziorik aurkeztu. Horrela, txosten horretan oinarrituta, egun berean, udaleko Idazkariak ziurtagiria egin zuen.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2009/03/31 GAO 60 zk.).
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua.
- Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamendua.
- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

HIRUGARRENA.- Gairen inguruan egiten den azterketa juridikoa:

I. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152. Artikuluan araututakoaren arabera, bizitegirako hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketa integratuen garapena eta exekuzioa arautzea eta antolatzea Urbanizatzeko Jarduketa-



Programaren (UJP) bidez egin behar da. Honela, aipatutako legeak 152-158. artikuluetan UJP izapidetu ahal izateko beharrezkoa den edukia, agiriak eta izapidetza zehazten ditu.

Hain zuzen, honakoa arautzen da 155.artikulan Urbanizatzeko Jarduketa-Programaren behin betiko onespeneri buruz:

«4.– Alegazioren bat baldin badago, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, udalak behin betiko onespenera emango dio urbanizatzeko jarduketa-programari gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onspen-erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita. Epe hori erabakirik eman gabe bukatzen denean, behin betiko onartu dela iritziko zaio, betiere interesdunei jakinarazteko tramitea burutu baldin bada.

5.– Urbanizatzeko jarduketa-programaren behin betiko onspeneri buruzko erabakia edo presuntzizko egintza lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere. Laburpenean honako hauek jasoko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa; eremuari izendatutako hirigintza-erakigarritasuna; jarduketa-sistema; aurrekontua; eta urbanizatzeko lanak eta, hala badagokio, eraikuntzakoak egikaritzeko programazioa».

II. Alkatetzari dagokio UJPri onspenera ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz bidez. Hortaz, organo horri dagokio behin betiko onspenera ematea.

III. «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa onartzeko espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetzeari jarraitu dio, eta jendaurrean alegaziorik egon ez denez, behin betiko onspenera eman daiteke.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «24.1 lurramendi pasealekua» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari (2024ko abuztuaren 1ean aurkeztutako dokumentua, 2024-10237 sarrera zk.); egokitzat ematen baitira eduki juridiko-urbanistikoaren 5 eta 6. apartatuen aldaketak.

BIGARRENA.- Behin betiko onspen erabakia, edukien laburpen bat barne, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Halaber, udalaren iragarki-oholean zein egoitza elektronikoan ere eskuragarri jartzea.

HIRUGARRENA.- Ebazpena interesdunari jakinaraztea.



3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2024/2226 DEKRETUA: 2024/40 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2024/2226 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Era-kundeek aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, al-kateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren be-teberrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko ho-nako faktura-zerrenda hau:

40. zenbaki duena, 624.128,22 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

40. zenbaki duena, 624.128,22 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:20ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0023-2024/10/15 akta/2024/10/15 akta ()